



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2018KO EKAINAREN 22AN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURA

Etorri diren batzordekideak:

Mikel Agirrezabala Ezkurdia

Etorri diren zinegotziak:

Itziar Arratibel Imaz

Jon Mikel Iglesias Otegui

Jesus Peñagarikano Labaka

Maria Iciar Jauregui Huarte

Idazkaria: Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

Kontuhartzailea: Lierni Muñoa Salaberria

Ibarran 2018ko ekainaren 22an udaletxeko bilera-aretoan, goizeko hamaikak direnean Tokiko Gobernu batzarrak bilera egin zuen eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden

Egintzaren buru Mikel Agirrezabala Ezkurdia alkatea izan zen eta bitarteko idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino

Udalburuak egintza ireki aurretik bi gai berri barneratzen dira Gobernu Batzorde kide guztien oniritziarekin: Egi Ikastolako lizitazioan kontratazio mahaiaren proposamena aztertzea eta Edulek egindako eskaera bati erantzuna. Hau adierazi ondoren, bilkura honetarako ditugun gaiak aztertu eta eztabaidatu dira eta honako erabaki hauek hartu dira

LEHENA:

1.AURREKO TOKIKO GOBERNU BATZORDEAREN AKTEN ONARPENA

1.1 2018KO MAIATZAREN 25EKO AKTA

Akta ez da aurkeztu beraz hurrengo Gobernu Batzordean onartuko da akta hau.

1.2 2018KO EKAINAREN 11KO AKTA

2018ko ekainaren 11n eginiko Gobernu batzarraren akta irakurri ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

ERABAKIA

BAKARRA: Onartzea 2018ko ekainaren 11n eginiko Gobernu Batzarraren akta

BIGARRENA:

2.-TOLOSALDEA MANKOMUNITATEARI 1227 ERREGISTRO ZENBAKIDUN HONDAKINEN GAINENKO APORTAZIOAREN ORDAINKETA EGITEA ONARTZEA

2018ko ekainaren 11n 1227 erregistro zenbakiarekin Tolosaldea Mankomunitateak 17.022,18 eurotako ekarpena egitea eskatzen dio Ibarra Udalarari Ibarra udalerriko hondakinen bilketa eta kudeaketatik.

Aurkezturiko ekarpenaren desglosea aztertu da eta egoki dela ikusi da.

Guztia azterturik hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

LEHENA.- Onartzea Tolosaldea Mankomunitateak Ibarra Udalarari eskatzen dion 17.022,18 eurotako ekarpena egitea, Ibarra udalerrian honakinen bilketa eta kudeaketatik.

BIGARRENA.- Ordainketa egitea agintzea.

HIRUGARRENA.- Akordio honen berri Tolosaldeako Mankomunitateari (E) eta Kontuhartzaitzari (E) jakinaraztea

3.- TOLOSALDEA MANKOMUNITATEARI 1340 ERREGISTRO ZENBAKIDUN HONDAKINEN GAINENKO APORTAZIOAREN ORDAINKETA EGITEA ONARTZEA

2018ko ekainaren 20an 1340 erregistro zenbakiarekin Tolosaldea Mankomunitateak 29.821,14 eurotako ekarpena egitea eskatzen dio Ibarra Udalarari Ibarra udalerriko hondakinen bilketa eta kudeaketatik (2018ko maiatzekoa)

Aurkezturiko ekarpenaren desglosea aztertu da eta egoki dela ikusi da.

Guztia azterturik hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

LEHENA.- Onartzea Tolosaldea Mankomunitateak Ibarra Udalarari eskatzen dion 29.821,14 eurotako ekarpena egitea, Ibarra udalerrian honakinen bilketa eta kudeaketagatik.

BIGARRENA.- Ordainketa egitea agintzea.

HIRUGARRENA.- Akordio honen berri Tolosaldeako Mankomunitateari (E) eta Kontuhartzaitzari (E) jakinaraztea

4. 252018 FAKTURA ZENBAKIA DUEN JESUS GURIDI AUZOAN ASFALTATZE LANAK EGITEAGATIK DAGOKION KOPURUA ONARTU ETA ORDAINTZEKO AGINDUA EMATEA

252018 faktura zenbakiarekin Bixente Otegi Lizaso S.L enpresak 35.971,29 euro eskatzen ditu Jesus Guridi Auzoan egin diren asfaltatze lanengatik.

Aurkezturiko ekarpenaren desglosea aztertu da eta egoki dela ikusi da.

Guztia aztertutik hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

LEHENA.- Onartzea 252018 faktura non Bixente Otegi Lizaso S.L enpresak Ibarra Udalarari eskatzen dion 35.971,29 euro, Ibarra udalerriko Jesus Guridi Auzoan egin diren asfaltatze lanen ordainketa gisa.

BIGARRENA.- Ordainketa egitea agintzea.

HIRUGARRENA.- Akordio honen berri Bixente Otegi Lizaso S.L (E) eta Kontuhartzaitzari (E) jakinaraztea

5 2018 KO EKAINAREN 19AN BURUTURIKO INGURUMEN, MERKATARITZA ETA NEKAZARITZA BATZORDEAREN IRIZPENEN INGURUAN HARTURIKO ERABAKIA

5.1 KANPO ARGITERIA PUBLIKOA ALDATZEKO LIZITAZIOAN BALDINTZA ADMINISTRATIBO ETA TEKNIKOEN PLEGUEN ONARPENA

Tokiko Gobernu Batzordean kanpo argiteria publikoa aldatzeko esleipenerako baldintza pleru administratibo eta teknikoaren pleruak aurkezten dira.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Kontuhartzaitzak gai honen inguruan 2/2018 erreparoa aurkeztu zuen 2018ko ekainaren 20an 1295 erregistro zenbakiarekin.

Erreparoa inguruan hitz egin ondoren eta bertan ezarritakoa zuzentzeko konpromezua hartu ondoren, Kontuhartzaileak erreparoa altxatzeko aukera aipatu du.

Alkateak erreparoa altxatuko du dagokion prozedura aurrera eramanez.

2018ko ekainaren 19an izandako ingurumen, merkataritza eta nekazaritza batzordean irizpena kontutan izanik hona Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENENGOA: Onartzea kanpo argiteria publikoa aldatzeko esleipenerako baldintza plegu administratibo eta teknikoen pleguak. (I ERANSKINA)

BIGARRENGOA: Pleguak kontratazio profileen argitaratu esleipen prozedura hasi dadin.

5.2 MERKATARIEI 2017 URTEAN EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAREN LIKIDAZIOAREN ONARPENA

Ibarrako Udalak merkatarikari elkarteari 2017 urtean 5.000 euroko diru laguntza eman zion, 2017ko uztailaren 7an eginiko Tokiko Gobernu Batzordeak onaturiko erabakiaren ondorioz.

Kontutan hartuta diru laguntzaren zenbateko hori 2017ko Aurrekontu Orokorreko 1.0000.434.431.00.01 partidaren bitartez finantziatu zela.

Kontutan hartuta merkatarikari elkarteak 2018ko otsailaren 19an aurkeztu zituela 5.000 euroko diru laguntza hori justifikatzeko agiriak, 8.300,61 euroko gastua justifikatuta.

Kontutan hartuta ingurumen, merkataritza eta nekazaritza teknikariak agiri guztiak aztertu ostean ontzat eman zuela justifikazioa.

2018ko ekainaren 19an izandako ingurumen, merkataritza eta nekazaritza batzordean irizpena kontutan izanik hona Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENENGOA.- Onartzea Ibarrako merkatarikari elkarteak 2018ko otsailaren 19an aurkeztutako agiriak, 2017 urtean Udalarengandik jasotako 5.000 euroko diru laguntza zuzentzeko, non 8.300,61 euroko gastua justifikatzen den.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

BIGARRENA.- Kontuhartzaitzak zenbateko hori 1.0000.434.431.00.01 2017 partidan likidatzea

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri eman Kontuhartzaitza eta Uztularre elkarteari

5.3 UZTULARRE ELKARTEARI 2017 URTEAN EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAREN LIKIDAZIOAREN ONARPENA

Izaskun auzoan Uztularre Elkarteak sortu zen 2016 urtean, auzoaren bizitasuna areagotze eta dinamizatze aldera.

Kontuan hartuta Ibarra Udalak 5.000 €-ko diru laguntza eman ziola 2017 urtean 1.0000.434.338.10.01 aurrekontu partidatik.

Kontuan hartuta Uztularre elkarteak 2018ko otsailaren 21ean aurkeztu zituela 5.000 euroko diru laguntzak zurrizko agiri guztiak, 254 euroko gastua justifikatuta.

Kontuan hartuta ingurumen, merkataritza eta nekazaritza teknikariak agiri guztiak aztertu ostean 4.746 euro itzultzea eskatu ziola Uztularre elkarteari.

Kontuan hartuta Uztularre elkarteak jada itzuli duela 4.746 euroko zenbatekoa.

2018ko ekainaren 19an izandako ingurumen, merkataritza eta nekazaritza batzordean irizpena kontutan izanik hona Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENENGOA.- Onartzea Ibarra Udala Uztularre elkarteari 2017 urtean emandako 5.000 euroko diru laguntzaren likidazioa.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri eman Kontuhartzaitza eta Uztularre elkarteari

6.- EGI UDAL ERAIKINEKO HUSTUKETA ETA SEGURTASUN BITARTEKOAK HOBETzea, IKASTETXEAREN BERRITZE EXEKUZIO PROIEKTUAN JASOTAKOARI JARRAIKI.

2018ko ekainak 1ean ospaturiko Gobernu Batzordeak lizitazio honen presazko prozedura deklaratu zuen eta plegua administratibo eta teknikoak onartu ziren bertan.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Kontratazio profileen egoki argitaraturik, 2018ko ekainaren 22an kontratazio mahaia bildu da lizitazio ireki honetako 1 eta 3. gutun irekiera egiteko.

Kontratazio mahaiaik GOITU ERAIKUNTZAK enpresari 53.759,69 €ko prezioan kontratua esleitzea proposatzen dio Tokiko Gobernu Batzordeari.

Guztia azterturik hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

LEHENENGOA: Goitu Erainkuntzak enpresari esleitzea Egi Udal eraikineko hustuketa eta segurtasun bitartekoak hobetzeko kontratua. 53.759,69 €tako kopuruan.

BIGARRENGOA: Eskatzea Goitu Eraikuntza enpresari lizitazio honetako Plegu Administratiboaren 32.2 artikuluaen baitan kontaktuan esleitzeko dokumentazioa aurkez dezan:

- Jarduteko gaitasuna eta jarduera eremua egiaztatzen duten dokumentuak
 - C taldea erainkuntzak 3. Azpitaldea. Egitura metalikoak sailkapena frogatzen duen dokumentua
 - C taldea erainkuntzak 9. Azpitaldea . zurgintza metalikoa sailkapena frogatzen duen dokumentua
- Hala dagokionean, ordezkariak egiaztatzen duten agiriak.
- Eskaintzailea pertsona juridikoa denean, eraketaren edo aldaketaren eskritura, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatua, hala exijitzen bada. Horrela ez balitz, egoki den Erregistro Ofizialean inskribatutarik dauden jarduteko gaitasunaren eraketa-eskritura edo agiriaren, estatutuen edo sortze-ekitaldiko aktaren bidez egingo da. Bertan bere jardueraren arauak azalduko lirateke.
- Zerga eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean egoteari buruzko ziurtagiriak edo kontratuaren organo kudeatzaileari emandako baimena
- 250 langiletik gorako enpresek berdintasun plan bat badutela justifikatzeko dokumentazioa
- Langile finko desgaituen kopuruari buruzko adierazpena
- Jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta emana duela eta zerga hori ordaindu duela (edo bere kasuan, salbuetsia dagoela) egiaztatzen duen agiria.
- Behin-betiko bermea ezartzea 44.429,49 € x%5 = 2.221,47 euro. Honako kontu korrontean ezarri beharko da 2018OKAPI002 fidantza izenarekin,

2095 5043 94 1063684178 KUTXABANK FIANTZAK
LABORAL KUTXA FIANTZAK 3035 0141 81 1410900100



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Eskaintzaren sinatzailearen ordezkaritza egiaztatzen duen dokumentazioa (pertsonek beste pertsona fisiko edo juridiko baten izenean jarduten duenean)

HIRUGARRENA

3.- GALDERA ETA ESKAERAK

Ez dago galdera eta eskaerarik

Eta eguneko gai-zerrendan aztertu beharreko beste gairik ez zegoenez, batzordeburu jaunak egintza amaitutzat eman zuen goizeko hamaikak eta hogeita hamabost direnean, eta nik, idazkari naizen honetan, horixe egiaztatu nahi dut